

UDALBALTZAK 2023KO ABUZTUAREN 29AN EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko And.

ZINEGOTZIAK

Miryam Cándida Quintana Urrea And.
Javier López de Luzuriaga García jauna
Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jauna
Ione García de Acilu Diaz de Alda And.
Esteban Gómez Echagoyen jauna
Juan José García de Acilu Perez jauna
Lucia Elorza Lorenzo And.

BERTARATU EZINA

Manuel Muñoz Morentin jauna

IDAZKARIA: Lara Salceda Villaumbrales, fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udaletzeko bilkura aretoan, bi mila eta hogeita hiruko abuztuaren hogeita bederatzian, arratsaldeko ordu bietan, lehen deialdian bildu dira lehen aipatutako zinegotziak, osoko bilkuraren ezohiko bilkura egiteko Alkate andrea buru dela, Ibernalo Basterra Txasko, bitarteko idazkari kontu-hartzailea bertan dela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 46.2 c) artikuluekin eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 90.artikuluekin bat etorriz, beharrezko quoruma betetzen dela egiaztatzen da, eta ondore, gai-zerrendan sartutako gaiak bideratzen dira.

1.- ETXEBIZITZA SOZIALAREN ALOKAIKUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

AZALPEN-ZATIA:

Alkateak jakitera eman duenez, Santikurutze Kanpezuko Gaztelurako Igoera kaleko 6. Zenbakiko 1An dagoen etxebizitza soziala esleitzeko aplikatu beharreko baremoak, 2023ko uztailaren 11ko osoko bilkuran onartuak izan ziren.

Ezarritako epearen barruan aurkeztutako bi eskabideak aztertu dira, eta horietako bat, baztertu egin da, eskabideak aurkezteko datan oinarrietan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Azaldu da alokairu kontratuak bost urteko epea duela, luzatzeko aukerarekin batera. Era berean, errenta berrikusteko klausula sartu dela jakinarazi du, urtero egiazta dadin errentariak etxebizitza sozial hau eskuratzeko eskubidea eman zioten balditzei eusten diela.

XEDAPEN-ZATIA:

ERABAKIA: Bertaratutakoek aho batez erabaki dute:

LEHENENGOA.- Gaztelura igotzeko 6 zenbakiko 1^a etxebizitzaren alokairua lehenengo eskaerari esleitzea (511 sarrera-zenbakia), eta parte hartzaile guztiei eta baztertzeko arrazoiak jakinaraztea.

BIGARRENA.- Esleipendunari eskatzea deialdian ezarritako baldintzak bete ditzala eta dagokion kontratua sina dezala.

HIRUGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea dagokion alokairu kontratua sinatzeko.

2.- BUJANDAKO EL SOL KALEKO 5. ZENBAKIKO 2. POLIGONOKO 345. LURSAILAREN XEHETASUN-AZTERLANA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkatetzaren 2023ko uztailaren 14ko Ebazpenaren bitartez, hasiera batean onetsi zen Bujandako Sol Kaleko 5. Zenbakiko 2. poligonoko 345 partzelari eragiten dion xehetasun-azterlana, lurzatiaren lerrokaduren aldaketa zehazteko.

Xehetasun-azterlana jendaurrean jarri zen hogei egunez, 2023 uztailaren 26ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (87.zbk) eta 2023ko uztailaren 27ko Arabako Korreo egunkarian argitaratutako iragarkiaren bidez, eta banan-banan jakinarazi zitzaizen xehetasun-azterlanaren Lurralde-eremuan zuzenean ukitutako jabeei eta gainerako interesdunei.

Jendaurreko erakustaldian alegaziorik aurkeztu ez direla jakinarazten da.

ESKU-HARTZEEN EZTABAIDA:

Garcia de Acilu Perez jaunak hartu du hitza lursailaren erabilerari buruz galdetzeko, eta galdetu du ea herritik kanpo dagoen ala ez.

Alkateak espaloiarene aldaketaren berri eman du eta sustatzailearen arkitektoaren planoak azaldu ditu.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98.3 artikuluan eta Toki Araubidean Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.2c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzak honako erabaki hau hartu du aho batez:

XEDAPEN ZATIA:

ERABAKIA: Bertaratutakoek aho batez hartu dute

LEHENENGOA.- Behin-betiko onartzea Fausto Foronda Arronizek eskatuta Bujandako Sol Kaleko 5.zenbakiko 2.poligonoko 345 partzelari eragiten dion xehetasun-azterketaren proiektua.

BIGARRENA.- Behin-betiko onartzeko erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jabeei eta xehetasun-azterketak zuzenean eragiten dien gainerako interesdunei jakinaraztea, eta hirigintzaren arloan eskumena duen foru organoari jakinaraztea.

LAUGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau lortzeko behar diren agiriak sinatzeko.

Alkateak bertaratu diren udal-bozeramaileen taldeari galdetu dio ea galderarik egin nahi duten, eta ez da ezer adierazi.

Hurrengo Udalbatza ohikoa izango dela jakinarazten da, eta 2023ko irailaren 12rako edo 19rako aurreikusita dago, ahalik eta lasterren jakinaraziko den bezala.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilkurari amaiera eman dio goiburuko eguneko Ordubiak eta lau minutu direnean. Eta nik, bitarteko-idazkaria naizenez, horren fede ematen dut.

Alkatearen oniritzia,



Idazkaria,



ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 29 DE AGOSTO DE 2023

ASISTENTES:

PRESIDENTA:

Dña. Ibernal Basterra Txasko

CONCEJALES Y CONCEJALAS:

Dña. Miryam Cándida Quintana Urrea

D. Javier López de Luzuriaga García

D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz

Dña. Ione García de Acilu Diaz de Alda

D. Esteban Gómez Echagoyen

D. Juan José García de Acilu Perez

Dña. Lucia Elorza Lorenzo

EXCUSA SU ASISTENCIA

D. Manuel Muñoz Morentin

SECRETARIA: Lara Salceda Villaumbrales, que da fe del acto.

En Santa Cruz de Campezo, en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial del Ilustre Ayuntamiento de Campezo, siendo las catorce horas del día veintinueve de agosto de dos mil veintitrés, se reunieron en primera convocatoria, y a los efectos de celebrar sesión extraordinaria del Pleno las Concejales y Concejales anteriormente enunciados, bajo la presidencia de la Sra. Alcaldesa Dña. Ibernal Basterra Txasko, con asistencia de la Secretaria Interventora interina.

Se procede a la comprobación de la existencia de quórum de asistencia precisa para que se pueda iniciar, de acuerdo con los artículos 46.2.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y 90 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, pasándose a continuación a despachar los asuntos incluidos en el orden del día.

1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE ALQUILER DE VIVIENDA SOCIAL

PARTE EXPOSITIVA:

Dado a conocer por la Sra. Alcaldesa, los baremos de aplicación a fin de adjudicar el piso social ubicado en Santa Cruz de Campezo, en su calle Subida al Castillo N°6 1ªA, aprobados en sesión plenaria de fecha 11 de julio de 2023.

Vistos las dos solicitudes presentadas dentro del plazo establecido al efecto, quedando excluida una de ellas por no cumplir con los requisitos establecidos en las bases en la fecha de presentación de instancias.

Se expone que el contrato de arrendamiento cuenta con un plazo de cinco años más la posibilidad de prórroga. Asimismo, informa sobre la inclusión de la cláusula de

revisión de renta, para que de forma anual se compruebe que la arrendataria mantiene los requisitos que le dieron derecho al acceso de la presente vivienda social.

PARTE DISPOSITIVA:

ACUERDO: Se acuerda por unanimidad de los presentes:

PRIMERO.- Adjudicar el arrendamiento de la vivienda de Subida al Castillo N°6 1ªA a la solicitud n°1, seguida con número de entrada 511, procediendo a la notificación del resultado a todas las personas participantes y las causas de exclusión.

SEGUNDO.- Requerir a la persona adjudicataria para el cumplimiento de los requisitos establecidos en la convocatoria y la firma del contrato precedente.

TERCERO.- Facultar a la Sra. Alcaldesa para la firma del correspondiente contrato de arrendamiento.

2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ESTUDIO DE DETALLE PARCELA 345 POLÍGONO 2 CALLE EL SOL N°5, BUJANDA

Por resolución de Alcaldía de fecha 14 de julio de 2023 se aprobó inicialmente el Estudio de Detalle que afecta a la Parcela 345 del Polígono 2 en la calle el Sol Núm.5 de Bujanda, para definir la modificación de las alineaciones de la parcela.

El estudio de Detalle se sometió a información pública por plazo de veinte días, mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava núm. 87, de fecha 26 de julio de 2023 y anuncio aparecido en el Correo de Álava de fecha 27 de julio de 2023, y fue notificado personalmente a los propietarios y demás interesado/as directamente afectados/as comprendidos en el ámbito territorial del Estudio de Detalle.

Durante el período de información pública, no se han presentado alegaciones.

DEBATE DE INTERVENCIONES:

Toma la palabra el Sr. Garcia de Acilu Perez para preguntar por el uso de la parcela, y pregunta si se encuentra o no fuera del pueblo.

La Sra. Alcaldesa, informa sobre la modificación de la acera y expone los planos de la Arquitecta del promotor.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 98.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y 22.2.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno adopta por unanimidad el siguiente

PARTE DISPOSITIVA:

ACUERDO: Se acuerdo por unanimidad de los presentes

PRIMERO.- Aprobar definitivamente el Proyecto de Estudio de Detalle que afecta a la Parcela 345 del Polígono 2 en la calle el Sol Núm.5 de Bujanda iniciado a instancia de Fausto Foronda Arróniz.

SEGUNDO.- Publicar el Acuerdo de aprobación definitiva en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

TERCERO.- Notificar el presente Acuerdo a los propietarios/as y demás interesados/as directamente afectados por el Estudio de Detalle, así como ponerlo en conocimiento del Órgano Foral competente en materia de Urbanismo.


CUARTO.- Facultar a la Alcaldesa para la firma de los documentos necesarios para la consecución del presente Acuerdo.

La Sra. Alcaldesa pregunta al grupo de portavoces municipales presentes si quieren formular algún tipo de cuestión, no produciéndose ninguna.

Se comunica que el próximo pleno municipal tendrá carácter ordinario, y está previsto para el próximo 12 o 19 de septiembre de 2023, lo que se dará a conocer a la mayor brevedad posible.

Y no habiendo más asuntos, la Sra. Alcaldesa levanta la sesión a las catorce horas y cuatro minutos del día del encabezamiento, de lo que yo, La Secretaria interina, Doy fe.

VºBº Alcaldesa



La Secretaria



